# KOSTALDEKO IBILBIDEA

Euskaditik igarotzean, E9 "Europako Kostaldeko ibilbidea" mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinaleztatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121® "Talaia ibilbidea" Gipuzkoan, eta GR 123® "Bizkaiko Bira" Bizkaian.

# SENDERO LITORAL

*A su paso por Euskadi, el E9 "Sendero Litoral Europeo" se encuentra señalizado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR® 121 "Sendero Talaia" en Gipuzkoa y con el GR® 123 "Vuelta a Bizkaia" en el tramo vizcaíno.*




## GOMENDIOAK

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa…).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

## RECOMENDACIONES

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

*Planifica bien las etapas y adáptalas a tus posibilidades.*

*Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación…).*

*Respeta el entorno que visitas y al resto de senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Ed. 2025

Kostaldeko Ibilbideak labar eta hondartza harrigarrien etapa oparituko digu berriro Flyscharen geruzen liburuaren Bizkaiko bertsioan, Gipuzkoako kostaldean irakurtzen hasi ginena. Berriro ere hiri handira hurbilduko gara Getxora iristean. Bertan, portu zaharreko arrantzale-etxe pintoreskoek kontrastea egiten dute Neguriko antzinako eraikin dotoreekin, Bizkaiko zubi eseki famatura iritsi baino lehen, UNESCOren Munduko Ondare izendatua, ondoko Portugaleterekin lotzen duena.

*El Sendero Litoral nos vuelve a regalar una etapa de increíbles acantilados y playas en la versión vizcaína del libro de los estratos del Flysch que comenzamos a leer en la costa guipuzcoana. Nos acercamos de nuevo a la gran urbe al llegar a Getxo, donde las pintorescas casas de pescadores del puerto viejo contrastan con los elegantes edificios de época del señorial Neguri, antes de alcanzar el famoso puente colgante de Bizkaia, Patrimonio Mundial de la UNESCO, que conecta con la vecina villa de Portugalete.*

20,4 km | 680 m | 6h 30' | MIDE 1-2-2-4




**MIDE**

1 Ingurunean arriskuak egon daitezke
*El medio no está exento de riesgos*

2 Bidexkak edo zaldibideak adierazten duten seinaleak
*Sendas o señalización que indica la continuidad*

2 Zaldibideko ibilaldia
*Marcha por caminos de herradura*

4 6 eta 10 ordu arteko ibilaldi jarraia
*De 6 a 10 horas de marcha efectiva*

**SEINALEZTAPENA**
***SEÑALIZACIÓN***

GR® 123

Ibilbidearen jarraipena
*Continuidad del sendero*

Norabide aldaketa
*Cambio de dirección*

Norabide okerra
*Dirección equivocada*

## Bidezatia / *Tramo*

# PLENTZIA ▶ GORRONDATXE-AZKORRI

km 0 **PLENTZIA.** Etapa hau udaletxearen ondoan hasiko da, Zugaitz pasealekutik, itsasadarrari jarraituz oinezkoentzako zubiraino. Zubi hori zeharkatu, eta Txipio padurarren ondotik jarraituko dugu, interes natural handikoa. Malda labur baten ondoren, Muriolako hondartza nudistara iritsiko gara, eta, handik aurrera, bideak labar ederrak inguratzen ditu, Barrikako hondartzaren gaineko aparkalekura iritsi arte. Bertan badaude mahaiak eta ostalaritza-establezimenduak.

km 5 **BARRIKA.** Bidea harkaitz ikusgarrien gainetik igarotzen da, eta haien oinarrian formazio geologiko interesgarriak daude; horien artean flysch-geruza ospetsuak edo toles deigarri batzuk nabarmentzen dira. Aurrerago, Sopelako hondartzak agertuko zaizkigu, surflari askoren jostagarri. Getxon sartuko gara Barinatxe hondartzaren parean, Sopelarekin partekatzen duena.

*km 0* ***PLENTZIA.*** *La etapa comienza al lado del ayuntamiento, por el paseo Zugaitz, siguiendo la ría hasta el puente peatonal que cruzamos para continuar junto a la marisma de Txipio, de gran interés natural. Tras un corto repecho alcanzamos la playa nudista de Muriola, y a partir de aquí el sendero bordea hermosos acantilados hasta alcanzar el aparcamiento sobre la playa de Barrika, con zona de mesas y establecimientos hosteleros.*

*km 5* ***BARRIKA.*** *La senda discurre sobre impresionantes roquedos en cuya base yacen interesantes formaciones geológicas entre las que destacan los famosos estratos del flysch o algunos llamativos pliegues. Más adelante irán saliendo a nuestro paso los arenales de Sopela, muy frecuentados por surfistas. Habremos entrado en el municipio de Getxo a la altura de la playa de Barinatxe, que comparte con Sopela.*






## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
¡NO TE LO PIERDAS!

Ez galdu Algortako Portu Zaharreko giroaz eta ostalaritzaz gozatzeko aukera. Kolore biziko etxe ikusgarrietan pintxo-taberna alaiak eta Kantauri itsasoko onena dastatzeko jatetxeak daude. Udan, eskailera aldapatsuak terraza inprobisatu bihurtzen dira, itsasora begira eguzkitan lasaitzeko.

*No pierdas la oportunidad de disfrutar del ambiente y la hostelería del Puerto Viejo de Algorta. Sus pintorescas casas de colores vivos albergan desde animados bares de pintxos hasta restaurantes donde saborear lo mejor del Cantábrico. En verano, sus empinadas escaleras se transforman en terrazas improvisadas donde relajarse al sol con vistas al mar.*



© Alberto Muro



Bizkaia Zubia Munduko Ondare izendatu zuen Unescok, eta Getxo eta Portugalete lotzen ditu. Munduko lehen transbordadore-zubia izan zen. Gaur egun, igogailu bat du goiko pasabidera iristeko, eta Bilboko itsasadarraren bokaleko ikuspegi ezin hobeak eskaintzen ditu.

*El Puente Bizkaia, declarado Patrimonio Mundial por la Unesco, une Getxo y Portugalete y fue el primer puente transbordador de peaje en el mundo. Actualmente dispone de un ascensor que permite acceder a la pasarela superior ofreciendo unas vistas inmejorables de la desembocadura de la ría de Bilbao.*

Bidezatia / *Tramo*

# GORRONDATXE-AZKORRI ▶ AREETA

km 11 **GORRONDATXE-AZKORRI.** Pasealeku egokitu honetan atsedenlekuak eta begiratokiak daude, eta itsasargira eta Galeako gotorlekuaren hondakinetara eramango gaitu. Bilboko itsasadarraren bokalean, Abraren bista ederrak ikusteko aukera izango dugu Aixerrota ikaragarrira iritsi arte. Aixerrota Bizkaian dagoen haize-errota bakarrenetakoa da. Handik, Arrigunaga hiri-hondartzara jaitsi eta berriro Usategi parkera igo ondoren, Algortako Portu Zaharrera iritsiko gara.

km 16,8 **ALGORTAKO PORTU ZAHARRA.** Arrantza-portu zahar horretara iritsitakoan, Areetako Bizkaia Zubian etaparen amaierara iristeko, Ereaga eta Areetako hondartzen ondora eramango gaituen itsas pasealekuari jarraitu besterik ez dugu egin behar. Gure bidean, deigarriak dira Bilboko burgesiaren etxeak, gehienak XX. mendearen hasieran eraikiak, Ingalaterrako lorategi-hirien ereduari jarraiki.

km 20,4 **AREETA (BIZKAIA ZUBIA).**

*km 11* ***GORRONDATXE-AZKORRI.*** *El paseo acondicionado, dotado de zonas de descanso y miradores, nos conducirá hasta el faro y ruinas del fuerte de La Galea. Las vistas sobre El Abra en la desembocadura de la Ría de Bilbao serán espectaculares hasta alcanzar el imponente Aixerrota, uno de los pocos molinos de viento existentes en Bizkaia. Desde aquí, tras descender a la urbana playa de Arrigunaga y ascender de nuevo al Parque de Usategi, alcanzamos el pintoresco Puerto Viejo de Algorta.*

*km 16,8* ***PUERTO VIEJO DE ALGORTA.*** *Una vez en este antiguo puerto pesquero, para llegar al final de etapa en el Puente Bizkaia en Las Arenas, solo resta seguir el paseo marítimo que nos conducirá junto a las playas de Ereaga y Las Arenas. A nuestro paso llaman la atención las mansiones de la burguesía bilbaína, la mayoría de ellas construidas a principios del S.XX siguiendo el modelo de las ciudades-jardín inglesas.*

*km 20,4* ***LAS ARENAS (PUENTE BIZKAIA).***



## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
A TENER EN CUENTA

• Etapa honen ia 20 kilometroak gehiegi badira zuretzat, erraz bana dezakezu bi egunetan, Larrabasterrako metro-geltokia aprobetxatuz. Hartara iristeko, kilometro bat desbideratu behar duzu espaloian barrena Arriatera eta Barinatxe hondartzen artean dagoen aparkalekutik.

*• Si los casi 20 km de esta etapa son demasiado para ti, puedes dividirla fácilmente en dos jornadas aprovechando la estación de metro de Larrabasterra. Puedes acceder a ella desviándote 1 km por la acera desde el aparcamiento que se encuentra entre las playas de Arriatera y Barinatxe.*

• Muriola eta Meñakoz artean bidea estua da eta lokatzez betetzen da eurite-garaietan. Oinetako egokiak eraman, eta kontuz ibili erorikoak saihesteko.

*• Entre Muriola y Meñakoz el sendero es estrecho y se llena de barro en época de lluvias. Usa calzado adecuado y camina con cuidado para evitar caídas.*

## TELEFONO INTERESGARRIAK
TELÉFONOS DE INTERÉS

Turismo bulegoak
*Oficinas de Turismo*

| | |
|---|---|
| Plentzia | 688 66 74 94 |
| Sopela | 94 406 55 19 |
| Getxo | 94 491 08 00 |
| Portugalete | 94 472 93 20 |
| | 94 472 93 14 |

Larrialdiak
*Emergencias*
112 SOS DEIAK

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

